

# A D A B A K I A K

AITA DIEGO GOITIA JESUITAREN EUSKERAZKO LANAK ERE GALDUAK OTE?—Galdutzat genituen XVIII-garren mendeko Gamiz jesuita arabarraren lanak ere, baina berri pozgarria eman zigun Joan Goikoetxea-Maizak EGAN-en (1968-ko zenbakian) arkitu zituztela agertzean. Lan hoiek, uste baino garrantzizkoagoak izan ditezke, beintzat irudimenez beterik ikusten dira Goikoetxea-Maiza-ren oharretatik nabari danez, eta asko poztuko ginake lehenbailehen liburuxo batean argitaratuko balira. Edo zatika EGAN-en bertan.

Gure artean ezezagun dan beste idazle batekin arkitu naiz, baina bere lanak nundik izan ditezkeanaren berri, orain ere, jesuiten azterketetatik etorri beharko du, Aita Diego Goitia aulestiarra Gamiz arabarra bezala, jesuita zalako. Hara bere berria:

Birrargitara berri dan Labayru-ren *Historia General del Señorío de Bizcaya*-ren VI-gn. tomoaren 672-garren horrialdean agertzen danez, *Ambulavit Henoc cum Deo* (Bologna, 1794) liburuaren egilea zan Aita Diego Goitia-ko aulestiarrek, ba omen zituen euskerazko lanak esku-idatziz. Hara zer dion, hitzez-hitzez: «los Ejercicios de bascuence, en dialecto central o guipuzcoano (manuscrito)», eta aurreraxeago: «un cuaderno de frases españolas con versión a la lengua bascongada; otro cuaderno de ejercicios de lengua euskara y española; diez décimas en vascuence, tituladas: *San Borjaren bizibari amardunde...*» Eta, agiri danez, bizkaitar jesuita hau XVIII-gn. mendearen azkenaldekoa zan, «de los jesuitas expulsos», Labayru-k dionez.

Gamiz-ekin bezalako suerte ona bagendu, ongi letorke gure literatura hurriarentzat. Norbait arduratuko al da lan hoién bila?

J. S. M.